



SIALOMETRIA PROBA

Zer da sialometria proba?

Proba sinplea da, ez da agresiboa, eta zenbat listu jariatzen duzun jakiteko balio du. Proba honetan, ahora berez datorkizun listua isuri beharko duzu ontzi graduatu batera, 15 minutuan zehar. Eserita egon beharko duzu, hitz egin eta mastekatu gabe.

Zer egin behar dut proba egin aurretik?

Proba egin baino ordu eta erdi lehenagora arte jaki solidoak zein likidoak hartu ahal izango dituzu. Hortik aurrera, **ez duzu ezer hartu behar, ezta hortzak garbitu, erre edo txiklea jan ere.**

Non egingo didate proba?

AUOKKen, Erreumatologiako erizaindegian.

Nola egingo didate proba?

Ontzi bat emango dizute, eta 15 minutuan zehar ekoizten duzun listua horra isurtzen joan beharko duzu.

Emaitzaren arabera, batzuetan berriro egin behar izaten da proba. Hala balitz, erizainak pilula bat emango dizu, listu-guruinak aktibatzeke. Handik ordubetera, berriro egin beharko duzu proba.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Betiko bizimodua egin dezakezu.